

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anjel Mujika Garmendia

*Bergara,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Ama Amiliaetxebarri baserrikoa zuen eta aita Burlatakoa, lanera Bergarako irin lantegira joandakoa. Zazpi senide izan ziren, baina arreba bat ez zuen ezagutu, umetan hil zelako. Anjelek bost urte zituenean ama hil zitzaien, erditzean; orduan, arreba zaharrenak egin zituen ama-lanak. Kanposenekoa etxean bizi ziren, herrigunetik aparte, eta harreman handia zuten inguruko baserritarrekin. 14 urtera bitarte herri eskolan ibili zen Anjel, eta gero hainbat tailer eta lantegitan ibili zen lanean, burdinarekin lotuta betiere: tornulari ofizioa ikasi zuen. Gaztetxotan Bildur Gutxi futbol taldean ibili zen. Mendia, ehiza eta baratzea izan ditu zaletasun moduan. 40 urterekin ezkondu zen, San Prudentzioko emakume batekin, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-359

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-17
- **Iraupena:** 109 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com